

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2014ko OTSAILAREN 13an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko otsailaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga
Karlos Irazu Muñoa


Bere ezin etorria azaltzen dute: Jon Tejeria Otermin eta Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2014ko urtarrilaren 16an egindako ohiko bilkura
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **K.J. jaunak eginiko obra baimenaren azterketa, hala bada.**
4. **Antzola baserrian hainbat obra egiteko baimena eskaera, J.J. jauna.**
5. **Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
6. **DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2013 urteari buruzko Larraulgo Ekomuseoaren memoriaren berri ematea eta 2014 urteari dagokion diru-laguntza eskera, hala bada.**
7. **Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta bide azpiegituretako departamentuak igorritako idatziaren berri ematea, hala bada.**
8. **2014 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onspena ematea, hala bada.**
9. **Fakturak eta ordainketak.**
10. **Beste batzuk.**
11. **Erregu, galderak eta mozioak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2014 urteko urtarrilaren 16ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

03/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31koa, 2013ko 4.hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

04/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 7koa, hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

05/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 11koa, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Larraul udalerriak osatzen duten bake-epaitegien idazkaritza-elkarteari 159,37 eurotako diru-laguntza ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA


K.J. JAUNAK EGINIKO OBRA BAIMENAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik K.J. jaunak eginiko eskaera, non, Larraulgo Gainzabal etxeko lursailean, 96 m²ko borda bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako txabolaren krokisak, argazki batzuk eta batazbesteko aurrekontu bat aurkezten du.

Ikusirik, Larraulgo Arau Subsidiarioen arabera, eskaturiko erabilerarako ezinezkoa dela borda bat egitea.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, gehiengoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- K.J. jaunari jakinarazi, Larraulgo Arau Subsidiariotako 64. Artikuluaren arabera, eskaturiko erabilerarako, Gainzabal etxeko lursailean ezinezkoa izango duela 96m²-ko borda bat egin.

BIGARRENA.- K.J. jaunari, Larraulgo Arau Subsidiarioetako 64. artikuluan jasotakoaren berri ematea:

" Art 64.- Construcciones que pueden autorizarse. Tomando como referencia normativa el régimen de edificación y de uso de las zonas de calificación global y pormenorizada, las construcciones que pueden autorizarse en el Suelo No Urbanizable son::

a) Edificios o instalaciones destinados a la explotación agraria -agrícola, ganadera o forestal-, incluyendo en este apartado:

- La reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.*
- Sustitución de caseríos existentes*
- La construcción de nuevos caseríos*
- Instalaciones y edificios complementarios destinados a la explotación agrícola*
- Granjas y explotaciones ganaderas intensivas.*
- Unidades agrícolas especializadas (Invernaderos, viveros).*
- Unidades agrarias no profesionalizadas (huertas).*

b) Industrias agrarias y forestales no vinculadas a la explotación del territorio (serrerías).


c) Usos residenciales autónomos

d) Edificios o instalaciones destinadas a explotar los recursos del subsuelo, tales como canteras, minas, etc.

e) Construcciones e instalaciones vinculadas a la ejecución, entretenimiento y servicio de las obras públicas.

f) Edificaciones o instalaciones de interés público promovidas por la Administración que deban emplazarse en el medio rural.

g) Otras edificaciones como albergues, hoteles, campings, agroturismos, sidrerías etc.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Con carácter general y en lo que respecta a la edificación residencial, solo se permitirá la construcción de viviendas vinculadas a las explotaciones de nuevo cuño o a aquellas existentes que cumplan con los requisitos citados con posterioridad. No se admitirán en el Suelo No Urbanizable la construcción de edificios aislados de nueva planta destinados a vivienda familiar no adscritos a una explotación agrícola, ganadera o forestal. "

LAUGARREN PUNTUA

ANTZOLA BASERRIAN HAINBAT OBRA EGITEKO BAIMENA ESKAERA, J.J. JAUNA

Ikusirik J.J.S. jaunak eginiko eskaera, non Antzola baserrian egin nahi diren zenbait eraberritze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2014ko otsailaren 4an, Udal Aholkulari teknikoa den, Eba Erkiziak arkitektoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO ANTZOLA BASERRIAN EGIN NAHI DIREN ZENBAIT ERABERRITZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*J.J.S. jaunak, Larraulgo Antzola baserrian zenbait eraberritze lanak egiteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen deskribapena, planoak, argazkiak eta aurrekontu orokor bat aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***


Aurkeztutako eskarian, 3 eraberritze lan deskribatzen dira;

- *Iparraldeko balkoiaren segurtasun faltagatik, losa eta barandaren aldaketa, balkoia 0,50m zabalduaz. Lan hauen aurrekontua 354,72€ da.*
- *Baserriaren ondoan ekialdetik dagoen estalpearen zola iragaitzea, gainekaldeko terrazan barandila berria jarriaz. Terraza honen azalera 35m2koa da eta egin beharreko lanen aurrekontua 1.627,72€.*
- *Baserriaren mendebaldeko ikuiluko sarrera zabaltzea, ate berria jarriaz. Aurrekontua, 882,56€*

2006-ko Lurzoruaren Legearen 199 artikulua higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharrak arautzen ditu.

Artículo 199. El deber de conservación y rehabilitación

1.Los propietarios de terrenos, construcciones, instalaciones y edificios tienen el deber de mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad, ornato público y decoro, realizando los trabajos y las obras precisas para conservarlos o rehabilitarlos, a fin de mantener las condiciones requeridas para la habitabilidad o el uso efectivo.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Antzola baserriak ez du katalogazio berezirik eta Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, bereziki D20 produkzio zonaldean. Hau honela izanik, hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º, 56º eta 66º artikulak.

Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de la edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.

Artículo 56.- Edificios consolidados y fuera de ordenación ene l Suelo No Urbanizable.

Todas aquellas construcciones incluidas dentro del Suelo No Urbanizable de Protección quedan fuera de ordenación, exceptuando aquellas que por su vinculación con los usos propiciados y admisibles en cada zona puedan ser permitidas.

En el resto del Suelo No Urbanizable se consolidan las edificaciones existentes, incluyendo aquellas con parcelas iguales o inferiores a 20.000m² si bien éstas no podrán ser objeto de segregaciones.

Artículo 66.-Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

La reforma y rehabilitación de caseríos será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.

1.-Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.-Obras que afecten a los elementos exteriores. Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.


Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. De especial valor que el edificio pueda tener.

Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art. 48 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. Pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.

....

5.-Ampliaciones singulares del caserío primitivo.

Se podrán realizar obras de ampliación del caserío siempre y cuando los mismos queden adosados a él y no desdigan de la composición del edificio primitivo. La ocupación en planta de la ampliación más la superficie existente no podrá ser superior a 300m² 8s).



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hau honela izanik:

- *Iparraldeko balkoiak **gaur egungo neurriak mantendu beharko ditu**. Balkoiko baranda berriak, Kode Teknikoak finkatzen dituen baldintzak bete beharko ditu (SUA 1/3.2 artikulua). Lan hauen aurrekontua **800€-koa** izan daitekeela estimatzen da.*
- *Baserriaren ondoan ekialdetik dagoen estalpea ez da katastroan azaltzen, baina Foru Aldundiko argazki historikoetan aspaldikoa dela ikusi daiteke. Kontsolidatua bezala hartuz, Udalak Foru Aldundiko Ondasun sailera parte emango dio, akatsa zuzentzeko. Terrazako baranda berriek ere, Kode Teknikoak finkatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.*
- *Baserriaren mendebaldeko ikuiluko ate berriak inguruko atekin bat egin beharko du koloreari dagokionez.*

Beraz, aurrekoa betetzen bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.J. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Antzola baserrian egin nahi diren zenbait eraberritze lanak egiteko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari Teknikoak, 2014ko otsailaren 4an egindako txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.


HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL MENDI LASTERKETARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa, datorren martxoaren 16an ospatuko dela.

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeko diru-laguntza eskaera, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea, Asteasuko udalari lasterketan erabiliko diren hesiak eta kronometroa uzteko eskaera egitea eta



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hezkide Eskolako dutxak dohain erabiltzeko eskaera egiten diola A.A.J. jaunak Larraulgo Udalari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2014 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea, diru-laguntza hau baldintzatuta egongo da, A.A.J. jaunak 2013ko kitapena eta 2014ko aurrekontua aurkeztera.

BIGARRENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, Hezkide Eskolako dutxak dohain erabiltzeko baimena onestea, Larraulgo Udalak eta Hezkide Eskolak duen hitzarmenaren babesean. DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko diren hesiak eta kronometroa uzteko eskaera egitea.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri A.A.J. jaunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

DINA7 KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2013 URTEARI BURUZKO LARRAULGO EKOMUSEOAREN MEMORIAREN BERRI EMATEA ETA 2014 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak aurkezturiko 2013 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria.

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak prest dagoela 2014 urtean ere Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketarekin jarraitzea.


Ikusirik DINA 7 Elkarteak eginiko 2014 urterako diru-laguntza eskaera, euren jarduera aurrera eramateko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Karlos Irazu zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2013 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria onestea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak onespena ematea, DINA 7 Kultur Elkarteak 2014 urtean Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketa eraman dezan, horretarako dagokion



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

hitzarmena sinatuko delarik. Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakaria ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: DINA 7 Elkarteari 1.000 eurotako diru-laguntza ematea, euren jarduera aurrera eramateko.

LAUGARRENGOA: 1.000,00 eurotako gastua onestea, 2014 urteko aurrekontuetako 422.120.00.01 partidaren kargura.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO MUGIKORTASUN ETA BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUAK IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak, DINA 7 Kultur Elkartek eskaturik, Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta bide azpiegituretako departamentuari, Asteasun, Larraul-era igotzeko dagoen kartelaren azpian EKOMUSEOA ipintzen duen altzairuzko kartela jartzeko baimena eskaera egin zuela 2013ko urriaren 22an.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta bide azpiegituretako departamentuak, Larraulgo Udalak eginiko eskaerari erantzun diola, ondorengoa diolarik:


<i>“Izena:</i>	<i>Larraulgo Udala</i>
<i>Lanak, erabilerak edo garraioa:</i>	<i>Seinalea jartzea</i>
<i>Errepidea:</i>	<i>GI-3481</i>
<i>Lekua:</i>	<i>Asteasuko bidegurutzeta</i>

KONTRAKO IRIZPENA

Ekomuseoa adierazten duen seinale bat jartzeko aurkeztu den dokumentazioa ikusi ondoren, Bide Azpiegituretako Departamentuko Ustiapen Atalak honako irizpen hau ematen du, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileaz onartuak, xedatzen duena kontuan hartuta:

Seinaleak jarri behar dira zerbitzura eramaten duen errepidearen azkeneko puntuan; kasu honetan 2,240 kilometro puntuan. Alabaina, Asteasuko bidegurutzeta jartzeko baimena eskatzen da; hau da, 0 kilometro puntuan.

Hori dena kontuan hartuta, kontrako irizpena ematen diogu; beraz, eskatzaileak ezingo ditu egin eskatutako jarduketak edo obrak.”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: DINA7 Kultur Elkarteari, Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta bide azpiegituretako departamentuak igorritako idatziaren berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2014 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2014 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2014ko otsailaren 10ean egindako txostenean dioena.


Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2014 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 414.131,69 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK

I. Kap. Pertsonal-gastuak	82.677,28
II. Kap. Ondasun gastuak	99.566,00
III. Kap. Finantza gastuak	1.623,33
IV. Kap. Transferentzi arruntak	62.000,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

VI. Kap. Inbertsio errealak	146.117,38
VII. Kap. Kapital Transferentziak	8.200,00
IX. Kap. Pasibo finantziarioak	13.947,70
GUZTIRA GASTUAK	414.131,69

SARRERAK

I. Kap. Zuzeneko zergak	46.000,00
II. Kap. Zeharkako zergak	3.000,00
III. Kap. Tasak eta bestelako sarrerak	43.618,00
IV. Kap. Transferentzia arruntak	212.705,00
V. Kap. Ondare-sarrerak	5.010,00
VI. Kap. Inbertsio errealak inorenganatzea	0,00
VII. Kap. Kapital-transferentziak	103.798,69
IX. Kap. Pasibo finantzieroak	0,00
GUZTIRA SARRERAK	414.131,69


BIGARRENA.- 2014ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

LARRAULGO GURASO ELKARTEA	42,57
BABESA SUZAI	202,20
SUMINISTROS QUIMICOS GOR	135,27
TOLOSALDEA GARATZEN	240,00
AITZOL	56,84
DIONISIO ORMAZABAL	5,40
TOLOMENDI	122,40
BERRI LANTEGIA	54,87



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GAS NATURAL FENOSA	245,33
MOVISTAR	82,46
MOVISTAR	19,21
MOVISTAR	132,56
MOVISTAR	18,61
MOVISTAR	55,48

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **1.413,20** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA PUNTUA BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

10.1. SAN ESTEBAN JAIETAN TIRO PITXON POSTU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.D.D.S.F. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen “Tiro Pitxon” postu bat duela eta San Esteban festetan, aipaturiko postua jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: J.D.D.S.F. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, San Esteban jaietan Tiro-pitxon-eko postu bat jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA: J.D.D.S.F. jaunari jakinaraztea, Larraulgo Udaleko Alkatearekin, festaren hasieraren aurretik egon beharko duela, postuaren kokalekua zein izango den jakiteko.

HIRUGARRENA: Interesatuari erabaki honen berri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA